# 2024KO EKAINAREN 26AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

## *18. BILKURA*

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita lauko ekainaren 26an, arratsaldeko seiretan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Ana Azkoitia Urteaga andrea (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Igor Isusquiza García J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Asier Altuna Epelde J. (EH BILDU).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Itziar Larrañaga Arrizabalaga A. (EH BILDU).
Nagore Orbea Sánchez A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).
Nerea Machado Iparraguirre A. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).
Janire Astigarraga Larrañaga A. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Ezin etorriak:
Jon Bastarrika Salegi J. (EH BILDU).

Idazkaria: Unai Urkijo Rodriguez, Udal Idazkaria.

## 1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

Alkate andreak argitu du puntu honetan 2024ko maiatzaren 29ko akta onartzea proposatzen dela.

Asier Altuna jaunak hitza eskatu du aktan aldaketa bat proposatzeko. Aktaren 18. orrialdean honako hau zehazten da: *“Asierrek azpimarratu du gaia Tokiko Gobernu Batzordean komentatu zenean izena emanda zegoela eta bere ustez erabaki hori hartu aurretik beraiei komentatu behar zitzaiela.”*

ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

Asierrek honela azaltzea eskatu du: "*Asierrek azpimarratu du gaia Tokiko Gobernu Batzordean komentatu zenean izena emanda zegoela eta **gure ustez** erabaki **politiko** hori hartu aurretik beraiei komentatu behar zitzaiela.*"

Jose Joakin Etxaniz jaunak galdetu du ea beharrezkoa den batzordeetako testua eta irizpena aktetan txertatzea Osoko Bilkurak grabatzen direla kontuan izanda.

Alkate andreak komentatu dio Osoko Bilkuretan irizpenaren laburpena aurkezten dela, hortaz, Udalbatzako kide guztiek gai baten inguruko informazio guztia jasotzen dutela ziurtatzeko Osoko Bilkuren irizpenetan txertatzen da.

Idazkariak azaldu du audio aktak eskuz hartutako notak osatzeko erabiltzen direla.

Proposatutako aldaketarekin ados agertu dira beste batzarkide guztiak, beraz, bozkatzera pasatu dira eta akta **gehiengoz** onartu da.

2024ko maiatzaren 29ko bilkurako akta aurkeztu da, eta honakoa da bozketaren emaitza:

> **Aldeko botoak**: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Igor Isusquiza Garcia, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparraguirre, Janire Astigarraga Larrañaga eta Janire Igoa Merino.
>
> **Abstentzioa**: Nagore Orbea Sanchez.

Beraz, Udalbatza Osoak 2024ko maiatzaren 29an egindako bilkuraren akta onartzea gehiengoz erabaki du.

## 2.- 2025EKO EKITALDIAN LAN ONDORIOETARAKO, ORDAINDU EGINGO DIREN ETA BERRESKURATU BEHARKO EZ DIREN, AZKOITIKO UDALERRIKO TOKIKO BI JAI EGUNAK ZEHAZTEA.

Honakoa da aurkeztutako proposamena:

ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

**“PROPOSAMENA: 2025 EKITALDIAN LAN ONDORIOETARAKO, ORDAINDU EGINGO DIREN ETA BERRESKURATU BEHARKO EZ DIREN, AZKOITIKO UDALERRIKO TOKIKO BI JAIEGUNAK ZEHAZTEKOA**

**IKUSIRIK**

**I.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 12. artikuluan eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.2 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen apirilaren 23ko 49/2024 Dekretua, 2024ko ekainaren 8ko 89. zenbakiko EHAAn argitaratu dela, ondokoa xedatzen duelarik:

*artikulua.– Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan jaieguntzat hartuko dira lan ondorioetarako – ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko – urteko igande guztiak eta jarraian aipatzen diren jaiegunak:*

*Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna*

*Urtarrilaren 6a, Jaunaren epifania*

*Apirilaren 17a, Ostegun Santua*

*Apirilaren 18a, Ostiral Santua.*

*Apirilaren 21a, Pazko Astelehena*

*Maiatzaren 1a, Langileen eguna*

*Uztailaren 25a, Santiago Apostoluaren eguna*

*Abuztuak 15a, Ama Birjinaren Jasokundea.*

*Azaroaren 1a, Santu Guztien Eguna*

*Abenduaren 6a, Konstituzio Eguna*

*Abenduaren 8a, Ama Birjina Sortzez Garbiaren Eguna.*

*Abenduaren 25a, Eguberri eguna*

*artikulua.– 1.– Era berean, lan ondorioetarako, jaiegun izango dira – hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko-, bi mila eta hogeita bosgarren urtean,* ***tokiko jaiegun izaera izango duten bi egun. Laneko eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako osoko bilkurek proposatuta. Lurralde historiko bakoitzeko gainerako udalerriekin batera edo aparte hartu ahalko dira egun horiek.***

***2.– Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean egin beharko dute proposamena udalek, eta dagokien lurralde-ordezkaritzara bidali.***



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531

**KONTUAN HARTURIK**

**I.-** Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen apirilaren 23ko 49/2024 Dekretuaren 1. artikuluak, erakunde horri finkatzea dagozkion 12 jaiegunak – lan-ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoan, ordaindu egingo direnak eta berreskuratu beharko ez direnak - finkatu dituela**.**

**II.-** Dekretuaren 2. artikuluak, Lanaldia, lanaldi bereziak eta atsedenaldiak arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuaren 46. artikuluak xedaturikoa (*Serán también inhábiles para el trabajo retribuidos y no recuperables,* ***hasta dos días de cada año natural con carácter de fiestas locales que por tradición le sean propias en cada municipio****, determinándose por la autoridad laboral competente –****a propuesta del Pleno del Ayuntamiento correspondiente****– y publicándose en el «Boletín Oficial de la Comunidad Autónoma» y, en su caso, en el «Boletín Oficial» de la provincia.)*, non udal bakoitzak, udalbatzek proposatuta, udalerriko bi jaiegun proposatu behar dituzten, Azkoitiko udalerrian **2025. urtean**, **uztailaren 31a** – **San Inazio Eguna, Gipuzkoako lurralde historikoari dagokiona dena - eta abenduaren 1a, astelehena** - azaroaren 30a, **San Andres eguna** igandea delako **–** izatea proposatu dela.

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako proposamen hau onartzea proposatu dio Antolakuntza Batzorde Informatiboak:

**ERABAKI DA**

**LEHENA.- 2025 urtean Azkoitiko udalerriko tokiko bi jaiegunak**, **uztailaren 31a** – **San Inazio Eguna, Gipuzkoako lurralde historikorako proposaturikoa** – eta **abenduaren 1a, astelehena** – azaroaren 30a **San Andres Eguna** igandea delako- izatea proposatzea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzari.

**BIGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzari eta langileen ordezkariei.

2024ko ekainaren 20an Antolakuntza Batzordeak gaia aztertu eta irizpena aho batez onartu, honako bozketarekin:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Iraitz Otaño Mujika, Juan Jose Etxaniz Peña eta Janire Astigarraga Larrañaga.”

Alkate andreak jakinarazi du 2025. urtean San Andres Eguna, azaroak 30, igandea izango dela. Horrenbestez, eta kontuan izanda Tokiko Entitateen ahalmena bere eskumeneko jai egunak zehazteko, jai eguna abenduaren 1era pasatzea proposatu du.

ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza hartu eta adierazi du akordioaren alde bozkatuko dutela.

Bozketaren emaitza honakoa da:

> **Aldeko botoak**: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Nagore Orbea Sanchez, Iraitz Otaño Mujika, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre, Janire Astigarraga Larrañaga eta Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak 2025 ekitaldian lan ondorioetarako, ordaindu egingo diren eta berreskuratu beharko ez diren Azkoitiko udalerriko tokiko bi jaiegunak zehaztea aho batez erabaki du.

## 3.- EAJ, EH BILDU ETA PSE-EE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA, EKAINAREN 28KO LGTBI+ EGUNAREN INGURUKOA.

Honakoa da aurkeztutako adierazpena:

Ekainaren 28an, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Egunean, Azkoitiko Udalak aniztasunarekiko eta bizikidetzarekiko konpromisoa berretsi nahi du. Udalak, LGTBI+ mugimenduak eskubideen eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatzeaz gain, oraindik egin behar den lana aldarrikatu nahi du.

Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu sexu-askapenaren aldeko borrokan ahalegintzen diren pertsona, mugimendu eta erakunde guztiei. Beren dedikazioari, konpromisoari eta ausardiari esker, gaur lorpen garrantzitsuak ospa ditzazkegu giza eskubideen eta eskubide sozialen arloan.

Hala ere, pertsona guztien berdintasunean aurrerapen ukaezinak egin diren arren, oraindik diskurtso eta jarrera LGTBIfobikoak mantentzen dira. Diskurtso horiek, gehienetan ezjakintasunetik eta gorrototik eratorriak, lortutako aurrerapenak desagerraraztea eta diskriminazioa iraunaraztea bilatzen dute. Beraz, erne eta tinko egongo gara eskuratutako eskubideen defentsaren alde eta ez dugu inolako atzerapausorik onartuko.

ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

Udalak gogorarazi nahi du LGTBI+ eskubideen aldeko borroka guztion borroka dela. Azkoitiko jendarte osoaren elkarlana funtsezkoa da armairurik gabe, loturarik gabe, aurreiritzirik gabe eta estigmarik gabe bizi ahal izateko, eta komunitatea eraikitzeko. Babeskeinu bakoitzak, ikusarazte-ekintza bakoitzak, mugimendu hori indartzen eta aurrera jarraitzeko gure erabakia berresten laguntzen du.

Horregatik guztiagatik Azkoitiko Udalean konpromisoa hartzen dugu, gure herriko LGTBI+ pertsonen bizitzen gaineko diagnostikoak egin, eta honetan oinarritutako ekintza plan integralak abiatzeko. Prozesu hauek, herriko eragile zein LGTBI+ mugimenduko kideekin batera egiteko konpromisoa hartzen dugu eta egon ezean, erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatzeko moduak sustatuko ditugu.

Honetaz gain, herritarrak sentsibilizazio eta aldarrikapen-ekitaldiekin bat egitera gonbidatzen ditugu: leihoetatik eta balkoietatik kolore anitzeko banderak zintzilikatu, elkarretaratzera etorri, antolatu diren jardueretan parte hartu. Keinu txikiak elkartasunaren eta babesaren erakusgarri dira, eta agerian uzten dute ekainaren 28a aniztasunaren aldeko borroka dela.

Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi ahal izango garen etorkizun bat eraikitzeko. Gora Ekainaren 28a!

Alkate andreak gogorarazi du ekainaren 28an LGTBI+ eguna dela, hortaz, Azkoitiko EAJ, EH Bildu eta PSE-EEko udal taldeek aurkeztutako adierazpena irakurtzea proposatu du. Mertxe Zubillaga andrea adierazpena irakurtzen hasi da, ondoren Iraitz Otaño jaunak irakurri du eta azkenik Janire Igoa andreak.

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza eskatu eta adierazi du 2023ko azaroko plenoan bi mozio eta adierazpen bat eztabaidatu zituztela, klima babeslekuen eta espazio publikoen birnaturalizazioaren ingurukoa, Euskal zaintza eredu sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario baten aldekoa eta Euskararen egunaren ingurukoa.

Beraien ustez, batzordeetan lantzen ez diren adierazpen/mozio hauek ez dira eraginkorrak. Testu hauek irakurri ostean kajoian sartu eta hor gelditzen direlako.

Adierazpen/mozio askotan esaten denarekin ados daudela azpimarratu du, baina eraginkortasun gutxi ikusten diote, hortaz, beste bide batzuk jorratzea proposatu dute.

Asier Altuna jaunak hitza hartu eta adierazi du mozioei merezi duten garrantzia eman behar zaiela.
Ekainak 28, LGTBI+ mugimenduaren aldarrikapen eta borroka eguna dela aipatu du. Azken urteetan, sexu-askapenaren aldeko borrokan urrats sendoak eman direla aitortu du baina oraindik gogor lan egin behar da jarrera eta eraso LGTBIfobikoak ekiditeko.

ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

Alde batetik azaldu nahi izan du eskubideak onartzen edo lortzen direnean, sarritan ahazten dela lortutako eskubideak bere horretan eustea. Horregatik ezinbestekoa iruditzen zaio eskubideak egunerokoan zaindu eta errespetatzea, batik bat, ez galtzeko.

Beste aldetik, gogoratu nahi izan du oraindik 70 herrialdetan, sexu bereko pertsonen-harremanak izatea debekatuta dagoela. Hala ere, LGTBI+ mugimenduak, euskal gizarte gehiengoaren babes soziala irabazi duela uste du.

Amaitzeko ultra-eskuina eta eskuin muturraren oldarraldia gero eta handiagoa dela salatu du, hortaz, giza eskubideak eta eskubide sozialak babesteko, zaintzeko eta defendatzeko beharraren garrantzia azpimarratu du.

Aurrekoagatik Azkoitia Bairi eskatu dio giza eskubideen defentsan ekidistentziarik gabe jardutea. Udal mozio honen aurrean abstenitzea, ekidistantzian mantentzea iruditzen zaiolako.

Mozioak, herritarrak eta herriko eragileek kaleko arazoak udalera bideratzeko lan-tresnak direla iritzita, mozioak erantzutea udal ordezkarien zeregina dela uste dutela aipatu du honako adibide hau jarriz: 2015. urtean, Pariseko akordioaren ostean, zientifiko batzuk testu bat atera zuten larrialdi klimatikoa aldarrikatuz eta Australiako Darebin kondaduko pleno batek mozioa onartu ondoren, beste herrietako alkateek, instituzioek, eta gobernuek bere egin zuten, larrialdi klimatikoaren aldarrikapena iritzi zelarik onartzera munduko estatu denek. Horregatik dio, mozioei bere garrantzia eman behar zaiela.

Mari Jose Arregi andrea ados agertu da Asier Altuna jaunak esandakoarekin eta uste du gai hauek landu eta babestu egin behar direla. Horrenbestez, ez du ulertzen AZKOITIA BAI-k mozio honen alde ez bozkatzea. Mozioan konpromiso batzuk hartzen dira, eta sinatutakoak lortzeko abiapuntu bat izan daitezkeela deritzo. Azkenik, ostiraleko elkarretaratzera joateko gonbitea luzatu die herritarrei.

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza hartu eta adierazi du 2022an alderdi guztien artean honela zioen mozioa onartu zutela: “Horregatik guztiagatik Azkoitiko udalean, LGBTI+ pertsonen bizitzen gaineko diagnostikoa egiteko behar diren baliabideak jartzeko konpromisoa hartzen dugu.”

Beste alderdiei leporatu die gaurko mozioan, orain bi urte bezala, LGTBIQ+ pertsonen diagnostikoa, eta oraingoan, gainera, ekintza plana egiteko konpromisoa hartzen dutela esatea.

Komentatu du ere, gai hau lantzen ari direla, eta prest dutenean batzordeetara eramango dutela, guztiek batera landu eta aztertzeko. Hala ere, eta kontuan izanda azkeneko bi urtetan PNV eta PSE egon direla gobernuan, normalena, gaia beraiek ekartzea eta bideratzea iruditzen zaio. Dena den,

ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

horrela izango den esperantza handirik ez dutenez, jakinarazi du hasi direla kolektiboarekin biltzen.

Aurrekoa gorabehera, adibide batzuk jarriko ditu AZKOITIA BAI-ren iritzia mozio/adierazpenen inguruan zein den argi uzteko: “Garraio publikoari buruz onartu genuen mozioa datorkit burura, PNVrekin guk geuk onartua. PIPER elkartekoak, arazoak zituztela etorri zirelako hasi ginen gaiari garrantzia eman eta bazterrak mugitzen, urtebete pasa zen aurretik, mozioa onartu eta ezer egin gabe. Denok elkarrekin lanean jartzen garenean herritarrari irtenbideak emateko gauza garela ikusi da, baina garbi gelditu zen baita, lortu zen emaitza lortzeko, aurretik mozioa onartu izanak, ez zuela inongo eraginik izan.

Otsailean pentsioei buruzko mozioak izan genituen eztabaidagai. Eusko legebiltzarrean, EH Bilduren babesarekin onartutako akordioa aipatzen zuten PNV eta PSEk, eta EH Bilduk, egun berean, GARA egunkarian, Nafarroan ez onartzea leporatzen zieten 1080€ko gutxiengoa eskatzen zuen. Esan behar, pentsioei buruz, arrez gero udalean ez dela ezer gehiago landu.

PSEk klima babeslekuen eta espazio publikoen birnaturalizazioaren ingurukoa aurkeztu zuen azaroan, baina kasualitatez, pasa den astean, Energia eta Klima Planaren inguruko parte-hartze saio irekian, PSE alderdia ez beste denak izan ginen.”

Azaldutako guztiari erreparatuz, beraien ustez, agerian gelditzen da mozio/adierazpenen praktikotasuna eta eraginkortasuna.

Iraitz Otaño jaunak azpimarratu nahi izan du mozioen balore sinbolikoa.

Alkate andreak aipatu du Azkoitia ez dela salbuespenezko kasua, eta mozioa plenora ekartzearen arrazoia Ekainak 28 ospatzea dela. Bere nahia egunen batean data hau ospatu beharrik ez izatea litzateke, beste berdintasun eta beste onarpen batean gaudela esango bailuke, momentuz ordea, egun hori ez da iritsi.

Berarentzat ere akats bat da horrelako egun batean adierazpen hau ez babestea.

Nerea Machado andreak hitza eskatu eta kolektiboaren ordezkariekin harremanetan jarri ote diren galdetu du.

Alkate andreak berretsi du Azkoitia ez dela salbuespenezko kasu bat, eta Jaurlaritzatik, Emakundetik etorritako adierazpenak indar gehiago duela, herri bakoitzak berea egitea baino.

Iraitz Otaño jaunak kolektiboaren parte dela adierazi du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak**: Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu,



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531

Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Nagore Orbea Sanchez, Iraitz Otaño Mujika eta Janire Igoa Merino.

**Kontrako botoak**: Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak EAJ, EH Bildu eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako adierazpena, ekainaren 28ko LGTBI+ egunaren ingurukoa onartzea gehiengoz erabaki du.

## 4.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

| | **Behin bet. aurr.** ***Pres. def.*** | **Baimendua** *Autorizado* | **Erabilia** *Dispuesto* | **Onart. oblig.** *Contraído* | **Ordainketa** *Pagado* |
|---|---|---|---|---|---|
| Oraingo ekitaldia/*Ej. corriente* GASTUAK | 22.768.911,55 | 10.258.427,50 | 8.894.160,39 | 5.901.322,85 | 5.901.322,85 |
| | **Behin bet. aurr.** *Pres. Def.* | **Onar. esk. Garb** *Dchos. Recs.*. | **Bildut-garbia** *Recaudado* | **Kobr. Dagoena** *Pte. cobro* | **Itzulketak** *Devoluciones* |
| Oraingo ekitaldia*/Ej. Corriente* SARRERAK | 22.768.911,55 | 10.186.408,16 | 7.496.779,48 | 2.689.628,68 | 44.205,08 |

## 5.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde erregurik aurkeztu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate andreak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko seirak eta erdi direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

**ALKATEA**

**IDAZKARIAK**



**IDAZKARITZA** – Tel. 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

EKS | CSV: **ESKU9567d937-0679-4176-8958-4b6fc139e531**
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| Titulua / Título: | 2024PLEN0008-AKTA/ACTA (AZKOITIKO UDALA) |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

UNAI URQUIJO RODRIGUEZ
IDAZKARIA
**Data:** 2025/03/12 15:07:10

Sinatzailea 2 / Firmante 2: ANA MARIA AZKOITIA URTEAGA - 72443022Z
Alcalde
Data / Fecha: 2025/03/12 18:26:20